

{ analisia } **Dabid Lazkanoiturburu**

Kurduen argia

Herri kurdua existitzen dela gogora ekarri digute Ekialde Hurbilak azken hamarkadatan bizi izan dituen garai ilunek, Golkoko II. Gerratik hasi –lehen, Iranek eta Irakek 80ko hamarkadan bata bestearen kontra egin zutena, ahaztuen delako– eta Udaberri Arabiar-reraino –ondorioetako bat izan zen Estatu Islamikoaren kalifatoren aurkako gerra tarte-

Iranek egun bizi duen matxinada feministak, non kurduak zeresan handia duten, herri honen drama eta aldarrikapenak komunikabideetan azaleratzea ahalbidetu du azken asteotan.

Baina kurduena ez da gaurko kontua, milaka urteetan ahaztua izan den herriarena baizik.

Herri kurduaren historia luzea laburbilduz hasten da, hain zuzen, Elkarrek “Berria”-ren eta Jakinen laguntzarekin argitaratu duen eta Urtzi Urrutikoetxea kazetari eta, besteak beste, GARaren kolaboratzaileak idatzi duen “Kurdistan, argi bat Ekialde Hurbilean” lana.

«Argia» zentzu mitikoan ere hartuta, kurduen ibilbidea ezagutarazteko ezinbestekoa delako Newroz jai jatorriz zoroastrikoarekin hastea. Suaren jaia, kondairetan Kawa errementariak Dehak tirano asiriarra garaitzeko baliatu zuena.

Urtzi Urrutikoetxea GARako kolaboratzaileak «Kurdistan, argi bat Ekialde Hurbilean» lana kaleratu du, kurduen borroka eta argia, eguzkiaren sua, gurean ezagutzera eman duten hainbat kazetariren lanari jarraipena emanez.

Urrutikoetxeak idazten duenez, eguzkia sinbolizatzen du te herri eta hiri kurduetan urtero martxoko udaberriko ekinokzioan pizten dituzten suteek; urte (*new*) berria (*roz*). 2013koa jendearen parte-hartze aldetik izugarria eta historikoa izan zen Diyarbakirren.

Newroz ez dute soilik kurduak ospatzen, irandar izeneko herri guztiek baizik: persiarrek, balutxek, tajikek...

Kurduen historia lehen zibilizazioekin, Mesopotamian hedatu ziren asiriarrekin, babiloniarrekin, hasten da.

Nola ez, inperio persiarraren itzalean egon zen hasieratik mediarren, gero kurdu bilakatu zirenen, historia oparoa. Oparoa, Urrutikoetxearen hitzetan, «ezinbestekoak» direlako «kurduak Mesopotamia eta Ekialde Hurbila ulertzeko».

Egia da, halere, ia beti inguruko inperioen interesak gainean zituztela osatu izan dutela kurduak beren ibilbidea.

Kurdua zen Saladin Bigarren Gurutzadaren aurkako agintari militar musulmana, «Islam sunitaren bateratzailea», baina ez zien ekarpenik egin bere herrikideei. Handik 500 urtera Txaldirango Gudan Otomandar Inperioaren alde egin zuten kurduak, Persiako safaviden kalterako, Ismail I.a safaviden dinastiaren sortzaileak jatorri kurdua izan arren.

Halere, eta hori ni neuk diot, kontuan izan behar da garai haietan abertzaletasuna, nazionalismoa, beste era batean bizi zutela. Alde batetik, otomandarraren moduko inperioak ez zirelako geroago sortuko ziren estatu-nazioak bezain zentralistak eta kultura

gutxituen baztertzaileak, eta bestetik komunitatean pertenezia tribala delako, ez nazional-erromantikoa.

Liburuaren lehen atalean, hurbilketa historikoari buruzkoan, ez ditu Urrutikoetxeak gai korapilatsuak alde batera uzten, Otomandar Inperioaren erorialdiaren testuinguruan armeniarren aurka izandako genozidioa, esate baterako. «Ez dago zalantzarik zenbait *agak* (jauntxo kurduak) eta tribuk zuzenean hartu zutela parte genozidioan (...) baina ez ziren gutxi izan armeniarrek ezkutatatu zituztenak ere....».

Sevreseko Itunean –kurduei eremu propioa onartzen zien– eta, batez ere, urte baten bueltan, 1922an, akordio hura ezerezean utzi zuen Lausanakoan jar daiteke egun kurduak pairatzen duten sakanaketaren ardatza.

Izan dira ordutik gaur arte altxamenduak, 1937an Dersim hirian Atatürkek odoletan hustu zuena tartean. Izan dira kurduen subiranotasuna aldarrikatzeko saiakerak, hala nola 1945ean II. Mundu Gerraren ostean eta sobietarren laguntzarekin Mahabad hirian (egun Iranen) errepublika kurdu askea aldarrikatu zutenean. Izan dira tragediak, Saddam Husseinek Irakeko Kurdistan-go Halabja (kurduen «Gernika») herriaren aurka egin zuen erasoaldi kimikoa bezalakoa. Izan zen garai hartan Abdullah

Öcalanen gidaritzapean PKK gerrillaren sorrera...

Hori guztia lau estatutan sakabanatuta dagoen zori-tzarreko herrian.

Hala, bada, liburuaren bi-garren atalak lau zati ditu: Bakur (Ipar Kurdistan, egun-go Turkian), Baxur (Hego Kurdistan, Irak), Rojhelat (Ekialdea, Iran) eta Rojava (Mendebaldea, Siria). Eskual-de bakoitzaren ibilbidea eta bertako kurduak pairatu izan duten eta pairatzen ari diren egoera islatzen du egileak.

Hirugarren atalak gaur egungo Kurdistanen errepara-tzen dio: Estatu Islamikoak yazidi kurduen aurka Sinja-rren egin zuen genozidioa, jihadisten kalifatoaren aurka Siriako kurduak (YPG gerrilla) Kobane berreskuratzeko hasi zuten gerra eta milaka hilda-ko kostatako garaipena, Oça-lanen konfederalismo demo-kratikoari buruzko proiektu eraldatzailea, emakume kur-duak bere eskubideak eta ze-resana aldarrikatzeko borro-ka, kurdueraz ikasi ahal izateko debekua...

Baina horien berri izan du-gu, tamalez (gehienak gerta-kari larriak direlako) baina beste zentzu batean zorionez (kurduak bazirela eta badire-la konturatu garelako), gure komunikabideetan, bereziki GARA eta NAIZen.

Badira hogeit hamar urte luze, bai-na ez dut sekula ahaztuko



Inoizko jendetsuenak izan ziren Newroz ospakizunak 2013an eta 2014an Diyarbakirren, Ipar Kurdistanen.
Matthew CAVANAUGH | EFE

GARA berriki ireki eta nazio-arteko sekzioan lanean kubritu nuen lehen hitzaldia, Saddam Husseinen Iraken aurkako blokeoa salatze-ko.

Bagdadetik bueltan zeto-zen hizlariak eta Irakeko ospitaletan haurrek pairatzen zuten egoera ozenki eta arrazoi guztiarekin salatu zuten, AEBen zigor ekonomikoek jende xumearengan zuten eragin kriminala salatuz.

Hitzaldiak aurrera egin ahala bazirudien, entzuten zenaren haritik, irakiar guz-tiak Husseinen alde zeudela.

Amaieran, galderen txan-dan, «eta kurduak zer?» gal-detzea otu zitzaidan, ea or-dezkari kurduekin egon ote ziren jakin-minez.

Galdera ez zuten batere gustukoa izan hizlariak (be-

katua esaten da, ez bekataria, esamolde espainolak dioen bezala) eta gaia ez zela hura argudiatu zuen batek.

Ekitaldia amaitu eta hizla-rien mahaira hurbildu nin-tzen neure burua aurkezteko. Harrera hotza jaso nuen.

Orduan ez nekien gauza handirik herri kurduari bu-ruz. Baina urteen poderioz, eta gure egunkarian, hainbat kazetarik eta ekintzailek, as-ko GARAKo kolaboratzaileak, egin duten lan oparoari esker askoz gehiago dakigu.

Zerrenda luzea da, liburua-ren egiletik hasita: Manuel Martorell nafarra, David Me-seguer katalana, Aitor Araial-dea (goitizena da), Zahida Menbrano, Karlos Zurutuza... Guztiek, eta urte luze haue-tan ziur ahaztu ditudan beste

batzuek, izugarrizko lana egin dute kurduen auzia gu-rera ekartzeko.

Urtzi Urrutikoetxeak berak liburuaren azken kapitulu-an onartzen duenez –“Euskaldu-nak eta kurduak”–, ez da lan samurra izan, urte luzeetan, «Kurdistanen eta kurduekin lanean ibili izan garenok ba-samortuan bakarrik aritzea-ren sentipena izan dugu sa-rritan Euskal Herrian».

Palestinarek edo sahara-rrek gure artean merezi-mendu osoz jaso ohi duten elkartasunarekin alderatuta urriagoa izan da, agian Bilbo aldean kenduta, kurduen bo-rrokak Euskal Herriko kalee-tan izan duen oihartzuna.

Badirudi, ordea, ahazmen hori aldatuz doala azken ur-teetan. Urtzi Urrutikoetxe-ari ondorengo elkarrizketan es-kaintzen duen ideia lapurtu-ko diot. Batzuek, ustezko an-tiinperialismoaren izenean, inperioalismoak berak egiten duena errepikatzen zuten. AEBentzat Turkian PKK «te-rrorista zen», Saddam Hus-seinen aurkako kurdua, or-dea, «biktima», eta egun Siriako YPGkoak, kideak. Gauza bera baina alderantziz egin ohi zuten haiek.

Planteamendu ilunak, inte-res geopolitikoaren arabera-koak, eta gure artean indarra galtzen ari direnak.

Kurduen argia beharrezkoa dugulako, edonon.